

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

45/2023 TXOSTENA

Gaia: Ondasun Higiezinen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren hobariak aldatzea

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0149 (2023)

Sail tramatzailea: Errenta saila

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

1. Aurrekariak

Lehena.- Ondasun Higiezinen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 10.artikuaren aldaketeko proposamena aurkeztu da (ez dago sinadurarak):


“Bakarra : Ondasun Higiezinen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 10.artikuluko d) aldatzea eta lehen d) zana orain e) izendako da.Hau da:

<Lehen: d)Kuotaren %100eko hobaria edukiko dute hondamendi naturalak jasandako eremuetan dauden higiezinak.>

Eta orain:

< d) Kotizazio gabeko pentsioak, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dutelako zaurgarritasun egoeran daudenak. % 80eko hobaria izango da.

Hobaria aplika ahal izateko, subjektu pasiboak dagokion eskaera aurkeztu beharko du ondorioak sortuko dituen zergaldiaren aurreko ekitaldian. Espedientea izapidetzeko dokumentazio hau aurkeztu beharko da:



- Subjektu pasiboak kotizazio gabeko pentsioak, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dituenaren egiaztapen dokumentazioa.

Hobaria aplikatzerako orduan, ohiko etxebizitzatzat joko da subjektu pasiboa erroldatuta dagoena.

Udal administrazioak hobaria deklaratzen badu, hala frogatzen duen agiria egingo du, eta eskaera-dataren hurrengo ekitaldian izango ditu ondorioak.

Subjektu pasiboek nahitaez eman behar dute hobari horren baldintzetan eta betebeharretan gertatutako aldaketen berri; aldaketa horiek ondorioak sortuko dituzte gertatu eta hurrengo ekitalditik aurrera.

Administrazioak ofizioz egiaztatu ahal izango du zerga hobari hauek emateko beharrezko baldintzak betetzen direla, eta eskatu ahal izango du aurkeztekohi subjektu pasiboak hobarirako eskubidea duela frogatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak.

e)Kuotaren **%100eko** hobaria edukiko dute hondamendi naturalak jasandako eremuetan dauden higiezinak.”

Bigarrena.- Espedienteak hurrengoak jaso dira:

- Txosten tekniko-ekonomikoa.

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru-Araua.
- Uztailaren 20ko 8/2022 Foru Araua, zergen arloko zenbait aldaketa sartzen dituena.
- Maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari Buruzkoa.
- Ordezko moduan, administrazio-zuzenbideko xedapen orokorrak eta zuzenbide arrunteko manuak, bereziki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen



| | | |
|--|--|---|
| Agiri hau benetakoala dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E7000DB73100W5B5J4P1W8R1 | Sinadurea eta dataea JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:40:50 | EXPEDIENTE :: 2023IDA ERA_0149 Datea: 29/09/2023 Lekua: Bermeo Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|--|--|---|



dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu Araubide Juridikoaren araudia onartzen duena.

2.2. Hausnarketa juridikoa

Zergei buruz

Derrigorrezko Zergak abenduaren 16ko 9/2005 Toki ogasunari buruzko Foru Arauaren 20. 1. artikuluan daude jasota.

20.1. artikuluak dio: “*Las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, deberán exigir, de conformidad con las normas y disposiciones que los regulen, los siguientes impuestos:*

a) Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

b) Impuesto sobre Actividades Económicas.

c) Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

En el supuesto de que las Entidades Locales decidan hacer uso de las facultades que en relación a estos impuestos les reconocen las Normas Forales respectivas, deberán acordar el ejercicio de las mismas y aprobar la oportuna ordenanza fiscal.”

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauan dago araututa.

Hobariei buruz

| | | |
|--|---|--|
|  STEMMA PRODERI BERMEOKO UDALA BERMEOKO UDALA BERMEOKO UDALA | Sinadurea eta dataea JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:40:50 | EXPEDIENTE :: 2023IDA ERA_0149 Datea: 29/09/2023 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|--|---|--|



9/2005 Foru Arauaren 15. artikuluaren¹ arabera, Ordenantza fiskaletan zehaztu beharko dira hobariak.

Hobariak *ex lege* finkatuta egon behar dira, 9/2005 Foru arauaren 9.artikuluarekin² bat.

Kasu honetan, uztailaren 20ko 8/2022 Foru Arauan, zergen arloko zenbait aldaketa sartzen dituenean, 10. Bi artikulan Ondasun Higiezinen gaineko Zergan proposatutako hobaria ezartzea ahalbideratu du. Izan ere, hurrengoa jaso da:

“Dos. Se añade un nuevo número 10 al artículo 10, con el siguiente contenido:

«10. Las ordenanzas fiscales podrán regular una bonificación de hasta el 90 por 100 de la cuota íntegra del Impuesto en favor de los inmuebles que constituyan la vivienda habitual de los sujetos pasivos siguientes:

¹ 9/2015 Foru Arauaren 15. artikula: *Contenido de las ordenanzas fiscales. 1. Las ordenanzas fiscales que sean necesarias para establecer, regular y mantener los tributos a los que se refiere la presente Norma Foral contendrán, al menos: a) La determinación del hecho imponible, obligado tributario, responsables, exenciones, reducciones y bonificaciones, base imponible y liquidable, tipo de gravamen o cuota tributaria, período impositivo y devengo.*

² 9/2015 Foru Arauaren 9. artikula: *Beneficios fiscales. Las Entidades Locales, en uso de sus facultades y en el marco de las Normas Forales, podrán conceder beneficios fiscales en materia de sus propios tributos, asumiéndolos con cargo a sus propios presupuestos. A estos efectos, las Entidades Locales adoptarán el acuerdo que con carácter general determine la aplicación en su demarcación territorial de tales beneficios fiscales. Este acuerdo deberá publicarse en el «Boletín Oficial de Bizkaia».*



a) Los que ostenten la condición de titulares de familia numerosa. En este caso, la bonificación deberá atender a la capacidad económica de los sujetos pasivos y estará sujeta a que el Valor Mínimo Atribuible de la vivienda no sea superior a 300.000 euros.

b) Los que se encuentren en situación de vulnerabilidad por ser perceptores de pensiones no contributivas, de Renta de Garantía de Ingresos o de Ingreso Mínimo Vital, con especial atención a las situaciones de monoparentalidad y monomarentalidad.

Se entenderá por vivienda habitual aquella en la que los sujetos pasivos se encuentren empadronados. La regulación de los restantes aspectos sustantivos y formales de la bonificación a que se refieren los apartados anteriores, se establecerán en la ordenanza fiscal.»"

Economia, Ondare eta Errenta Saileko teknikariaren txostenean jasotzen denarekin bat, subjektu pasiboaren gaitasun ekonomikoa kontuan hartzeko subjektu pasiboak kotizazio gabeko pentsioak, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak kontuan izango dira.

Jarraitu beharreko prozedurari buruz

Hobari berriak finkatzeko eta artikulu berria sartzeko ordenanza fiska aldatu behar da. Ordenanza fiskalak aldatzeko prozedura 9/2005 Foru Arauaren 16. artikulan jaso da:

*"1. Los acuerdos provisionales adoptados por las corporaciones locales para el establecimiento, supresión y ordenación de sus tributos y para la fijación de los elementos necesarios en orden a la determinación de las respectivas cuotas tributarias, así como las aprobaciones y **modificaciones** de las correspondientes ordenanzas fiscales, se expondrán en el tablón de anuncios de la entidad durante treinta días, dentro de los cuales los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.*

| | | |
|---|--|---|
|  Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E7000DB73100W5B5J4P1W8R1 | Sinadurea eta dataea JURDANA URIARTE LEJARRAGA (Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:40:50 | EXPEDIENTE :: 2023IDA ERA_0149 Datea: 29/09/2023 Lekua: Bermeon Erregistro unidádea: Erregistro nagusia |
|---|--|---|



2. *Las Entidades Locales publicarán, en todo caso, los anuncios de exposición en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Asimismo aquellas entidades con población de derecho superior a diez mil habitantes deberán publicarlos en un diario de los de mayor difusión de este Territorio Histórico.*

3. *Finalizado el período de exposición pública, las corporaciones locales adoptarán los acuerdos definitivos que procedan, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción definitiva de la ordenanza, su derogación o las modificaciones a que se refiera el acuerdo provisional.*

En el caso de que no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.”

Arau bereko 17. artikuluaren arabera hurrengoak aurkeztu ahal izango dituzte erreklamazioak:

- a) *Los que tuvieran un interés directo o resulten afectados por tales acuerdos.*
- b) *Los colegios oficiales, cámaras oficiales, asociaciones y demás entidades legalmente constituidas para velar por los intereses profesionales, económicos o vecinales, cuando actúen en defensa de los que le son propios*

4. *En todo caso, los acuerdos definitivos a que se refiere el apartado anterior, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría, y el texto integral de las ordenanzas o de sus modificaciones, habrán de ser publicados en el «Boletín Oficial de Bizkaia», sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.”*


Artikulu horren arabera espedienteak hurrengoak izango ditu:

1. Udal zerbitzuek Ordenantzen aldaketaren egitasmoaren artikuludun testua eta erabaki proposamena prestatuko dute.

Espedienteak ez da jaso ordenantzaren testu bateratua eta ez dago erabaki proposamen sinatua.

2. Txosten tekniko-ekonomikoa egin da.

3. Aurretiazko fiskalizazio mugatuak kontrako esan ezean, kontuhartzaileak txostena egingo du, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren



bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen legearen testu bateginaren 214. artikuluaren eta abenduaren 2ko 10/2003 Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 67. artikuluaren arabera. Expedientean ez dago kontuhartzalearen txostena.

4. Idazkariak txosten juridikoa egingo du.
 5. Proposamena bideratuta Informazio Batzordearen irizpena beharko da eta, ondoren, Osoko Bilkurak hasierako onarpena emango dio, gehiengo soilaz.
 6. Behin-behineko erabakien jendaurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxieneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean.
 - Epe horren barruan, interesdunek expedientea aztertu dezakete, bai eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ere.
 7. Aipatutako epearren barruan aurkeztu diren erreklamazio nahiz iradokizun guztiak ebatzi beharko dira, eta Osoko Bilkurak behin betiko onartuko ditu ordenantza fiskalak (urretiaz Informazio batzordearen irizpena beharko da). Erreklamaziorik aurkeztu ezean, ulertuko da Ordenantza automatikoki behin betiko onartuko dela. Ondorio horietarako, Idazkariak ziurtagiria egingo du hasierako onarpena behin betiko bihurtu dela egiaztatzeko.
 8. Behin betiko erabakia edo hala bihurtu den behin-behineko erabakia eta aldatutako ordenantzen testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- Ez da indarrean sartuko argitaratze hori gauzatu arte.

Eskumenari buruz³

Bermeoko Udaleko osoko bilkurari dagokio ordenantza fiskalak onartu eta aldatzeko eskumena, gehiengo soilez.

3. Ondorioa

³ Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundeen Oinarriak arautzen duten Legearen 22.2.d artikuluaren arabera.



| Sinadurea eta dataea | | EXPEDIENTE :: 2023IDA ERA_0149 |
|--|---|---|
| Agiri hau benetakoala dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E7000DB73100W5B5J4P1W8R1 | JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 11/10/2023 16:40:50 | Datea: 29/09/2023 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |



Hori guztia kontuan hartuz, **kontrako txostena** egiten zaio Ondasun Higiezinen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 10.artikuaren aldaketari, hurrengo arrazoiengatik:

- Ez dago erabaki proposamen sinatura expedientearen.
- Erabaki proposamenean hurrengoa jasotzea komeni da: Behin-behineko erabakien jendaurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxiengoko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, ulertuko da Ordenantza automatikoki behin betiko onartuko dela. Erabaki proposamenean kolore horia kentzea komeni da.
- 14. artikulua gehitzeari buruz hitz egiten da txosten ekonomiko-finantzieroan, ostera, erabaki proposamenean ez da horrelakorik jaso.
- Kontu-hartzalearen fiskalizazio txostena falta da expedientearen.
- Ordenantzaren testu bateratua zelan gelditzen den jaso behar da.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2023ko urriaren 11n

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

